

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen dekretua, 2020ko uztailaren 3koa, aldi batean norbaiten eskumen eskuordetuak aldi batean besteren baten esku uzteko**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez, Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziaren esku utzi ziren Kirol eta Osasun Sailaren inguruan Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkion zenbait eskumen, betiere Dekretu hartako lehen eta zortzigarren xedape-nekian bat etorrita.

a) Udalaren ordezkari izatea egungo Kirol eta Osasun Sailaren zerbitzuen jardueretan –alkateari dagokion ordezkari nagusia gorabehera–, ekitaldi publikoetan nahiz beste instituzio, erakunde edo elkarteekiko hitzarmen edo harremanetan.

b) Dekretu, ebazpen eta jarraibideak ematea egungo Kirol eta Osasun Sailaren zerbitzuen esparruan, baita egintza horien kontra bidezko diren errekurtsioak ebatzea ere, salbu eta lizentziei, kontratazioei eta gastuei dagozkienak eta zigortzeko ahalmena; izan ere, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak dira horiek, eta, horrenbestez, hark eskuordetu beharko ditu, behar izanez gero.

c) Udal organo betearazleen erabakiak argitaratu, gauzatu eta bete daitezela agintzea, Kirol eta Osasun Sailaren zerbitzuari dagozkionetan. Tokiko Gobernu Batzarrak esleitutako kontratuak sinatzea, Kirol eta Osasun Sailaren zerbitzuei dagozkionetan.

d) Ordainketa-aginduak ematea eta ordainketak gauzatzea edozein bide baliatuz, eta kontaktaketa-agiri arruntak izenpetzea.

Zinegotzi hori amatasun-bajan dago, uztailaren 6az (astelehena) geroztik. Hori dela eta, lanera itzuli bitartean hura ordezkatzeko duena izendatu beharra dago. Aldi horretan, alkateak bereganatuko ditu haren eskumenak, eta zinegotzi eta Gobernu Batzarreko kide Iñaki Gurtubai Artetxeri eskuordetuko dizkio aldi baterako.

Hauxe dio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10 artikulua:

#### **“10 artikulua. Goragokoak eskumena bereganatzea**

1. Goragoko organoek berenganatu egin dezakete beren mendeko organoek ohiz edo eskuordetzaz ebatzi beharreko gairen baten ardura, arrazoi teknikoek, ekonomiazkoek, juridikoek edota gizartearen edo lurraldearen aldetikoez hala eskatzen dutenean.

Hierarkian mendeko ez diren organoek eskumenak eskuordetzan emanaz gero, organo eskuordetza-emaitzak bakarrik beregana dezake gairen baten ardura.

2. Goragokoak eskumenak bereganatzeko arrazoitu egin behar du beti erabakia, eta jakinaz prozedurako interesdunei, halakorik balitz, azken ebazpenaren aurretik.

Eskumenak bereganatzeko erabakiari ezin zaio errekurtsorik jarri; dena den, aurka egin ahal izango zaio prozeduraren ebazpenari jarritako errekurtsioan, jartzen bada.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen dira alkatearen zereginak eta bertan horietako batzuk, dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko beste kideen esku utz ditzakeela adierazten da bertan.

Oinarrien Legearen 124. artikuluko 4. a), f), g) atalak, 125. artikulua eta 127. artikuluko 1 e) g) h) eta l) atalak eta Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 12., 40. eta 41. artikulua ikusi dira. Horiek guztiak kontuan harturik,

Xedatu dut

Lehen xedapena - Dekretu honen atarikoan aipatzen diren Kirol eta Osasun Saileko esku-menak –zein zinegotzi eta Tokiko Gobernu Batzarraren kide den Livia Claudia López Gutiérrezen esku utzi baitziren alkatearen 2019ko ekainaren 21eko Dekretu bidez– amatasun-bajan den bitartean, edo besterik ebatzen ez den bitartean.

Bigarren xedapena. Dekretu honen atarikoan eta lehen xedapenean aipatzen diren esku-menak zinegotzi eta Tokiko Gobernu Batzarraren kide den Iñaki Gurtubai Artetxeren esku uztea, amatasun-bajan den bitartean, edo besterik ebatzen ez den bitartean.

Azken xedapena. 2020ko uztailaren 6an jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 3an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*